

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

“la Caixa” fundazioak 13 milioi erabiliko ditu Nafarroako gizarte eta kulturako proiektuetarako 2015. urtean

Barcina Lehendakariak eta bankuaren fundazioko Isidro Fainék lankidetzeta-hitzarmen bat izenpetu dute, eta haren barnean sartzen dira ere, hezkuntza nahiz ingurumeneko ekintzak, edo ekintza zientifikoak

Viernes, 20 de febrero de 2015

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak eta "la Caixa" Bankuaren Fundazioko lehendakari Isidro Fainék akordio bat sinatu dute gaur, Iruñean. Akordio horrek gizarte-ekintzan, hezkuntzan, arlo zientifikoan eta ingurumenean bi erakundeen arteko lankidetzeta jasotzen du 2015. urterako. Urte honetan, finantza-entitateak Foru Komunitateko inbertsio soziala sendotuko du 13 milioi eurekin, 2014an baino milioi bat gehiago.



Barcina Lehendakaria eta Isidro Fainé akordioa sinatzen.

Izenpetutako hitzarmenaren lehentasunen artean daude: gizarte-bazterketaren aurkako borroka; zailtasunak dituzten kolektiboen arteko enplegua sustatzea; adinekoek gizartean parte hartzea eta haien zahartze osasungarria; gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonentzako arreta integrala; natura eta ingurumena babestea; eta kultura zabaltzea.

Sinatzaileez gain, hitzarmenaren izenpetzean izan dira: Nafarroako Gobernuaren aldetik, lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilari Lourdes Goicoechea eta Aurrekontuen zuzendari nagusi Juan Franco, bai eta la Caixako zenbait zuzendaritzakide ere, haien artean, Bankuaren Fundazioko zuzendari nagusi Jaime Giró, edo Nafarroako lurralde-zuzendari Ana Díez.

Akordioa sinatu ondoren, Barcina Lehendakariak la Caixak zer-nolako sentsibiltate soziala duen azpimarratu du, eta hark emandako laguntza eskertu. Isidro Fainék, berriz, esan du, la Caixa sortu zenetik, lurralde bakoitzeko egiazko arazoei buruz kezkatzeko konpromisoa duela.

Proiektu nagusiak

Honako hauek dira programa nagusiak:

-Incorpora programa, zailtasunak dituzten kolektiboen arteko enplegua sustatzeari buruzkoa da. Enplegua aurkitzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea du xede. Horretarako, laneratzaillearen sare bat sortu da irabazi-asmorik gabeko erakundeekin hitzarmenak sinatuz; erakunde horiek alor horretan zailtasun bereziak dituzten pertsonak lan-munduratzeko egiten dute lan. Laneratzaillea prestakuntza-prozesua zaintzeaz arduratzen da, eta onuradunei laguntza emateaz, izan daitezkeen gatazkak konpontzeaz eta enpresaburu berriak programari atxiki daitezzen sustatzeaz. 254 lanpostu sortu zituen iaz Foru Komunitateko 45 enpresa berriekin lankidetzan.



Sinatzaileak hedabideen aurrean agertu dira.

- Gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen eta haien familiei arreta integrala emateko programa. Programa honen helburua bizitzaren azken-prozesuan dauden pertsonen eta haien familien arretakalitatea hobetzea da. Horretarako, arreta integraleko taldeen sare bat sortzen da, eta honako hau eskaintzen du: laguntza emozionala paziente eta familiarrei, dolurako arreta eta zaintza aringarrietako taldeentzako laguntza. Gainera, programak profesionalentzako prestakuntza-eredu bat garatzea jasotzen du. Nafarroak diziplina anitzeko arretako talde bat du Iruñeko San Juan de Dios ospitalean, programa ezartzeko. Zentro horretan 437 paziente eta 622 familiar artatu ziren iaz.

- Adineko pertsonen lotutako programa. Haren helburua adinekoen partaidetza soziala sustatzea da, beren esperientzia balioan jartzea eta gure gizartean protagonistak izatea. Beste ekintza batzuen artean, adinekoen borondatezko lana eta teknologia berrietako, kulturen eta gizarteko proiektuetan prestatzea. 1.931 pertsonak hartu zuten parte iaz autonomia sustatzeko, zahartze osasungarrirako eta mendekotasuna prebenitzeko egindako 103 ekintzetakoren batean.

- Reincorpora programak askatasunik ez duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea du xede, horretarako esku hartze integral pertsonalizatua eginez, haren barnean; prestakuntza, lan-orientazioa, bitartekotza eta jarraipena. Reincorporari lotutako gizarte-erakundeek gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide horren garapenean parte hartzen dute, eta presoen prestakuntzari eusten dio zenbait lanbide-erlotan.

Beste gizarte-ekimen batzuk

Jarduera-ildo horiei, erakundeak bere gizarte-ekimeneko deialdien bidez babestutako proiektuak erantsi behar zaizkie (2014an, 361.500 euro erabili ziren Nafarroako erakundearen 15 proiektu sustatzeko); prestakuntzari nahiz hezkuntzari emandako laguntza "la Caixa" Estatuko eta Nazioarteko Gradu Ondoko Beken bidez (Nafarroako 4 bekadun izan ziren 2014an; eta eduCaixa programa (proiektu hori Foru Komunitateko eskoletan ematen da, eta iaz 41.378 ikaslek parte hartu zuten).

Ingurumenean, jadanik bederatzi ingurumen-jarduera egin dira eta, haiei esker, gizarte-bazterketako arriskuan zeuden 52 pertsona lan-munduratu ahal izan dira.

Kultura eta ezagutza zabaltzeko arloan, "la Caixa"-k pertsonen hazkuntza sustatzen du haien erakusketa, musika, arte eszeniko eta hitzaldien programekin. 25.000 pertsonak baino gehiagok babestu zuten Gizarte Ekintzak 2014an Nafarroan egindako erakusketa-proposamena.

Akordioaren beste alderdi bat ekintzaile eta enpresa iraunkorrei emandako laguntza da, Ekintzailtza Sozialeko Programaren bidez.

Azkenik, bere bulego-sarearen bidez, 316 jarduera egin ziren eta, haietarako, 1.165.138 euro erabili ziren ingurune hurbilenekoen beharrei erantzuteko.